



## Zegama-Aizkorri mendi maratoian 468 lagunek irtengo dute igandean

**ZEGAMA** Zazpi ekitaldietako parte-hartzerik jendetsuena da, eta horien artean Goierrikoak 63 korrikalari dira

**PREST** Antolakuntza puntu-puntu daukate Zegaman, eguraldiaren zain; Europako Txapelketa jokatu da 2-3



Eregi enpresako Iñaki Martinez eta Leire Larrañaga, logotipoaren eta esanaren egileak, aurkezpenean. IÑAKI GURRUTXAGA

## ORDIZIAKO EUSKARA PLANAK BADU LOGOA

**ORDIZIA** Lehiaketara aurkeztutako proposamenen artean aukeratu dituzte irudia eta esana, 'Euskara erabili, ezagutu, elikatu' dadin 4

## AEKren txiste eta pasadizoen lehiaketa Calvilok eta ikasle taldeak irabazi dute

**GOIERRI** AEK-k Goierri osoan antolatu duen 17. lehiaketara 100 lan aurkeztu dituzte 6



Saridunak eta AEK-ko arduraduna, sari banaketa ekitaldian. MAIDER DEL OLMO

## Segura-Zegama bidea berritzeko lanak hasi dira

**GOIERRI** Zerainerako bidegurutzetik Kortaberrira arteko zatia zabalduko dute, urtebeteko epean 3

## Udalekuean euskara kaleratu nahi dute udan Legazpin

**LEGAZPI** Haur eta begiraleek izena eman dezakete 7

## AHTren aurka bilkurak egingo dituzte gaur zenbait herritan

**GOIERRI** Igandean obretara martxa deitu du Elkarlanak 4



UROLA GARAIO LANBIDE ESKOLA  
"Ziurtatu zure etorkizuna"

LANBIDE HEZIKETAKO ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK:

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea - eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak

Aurkezpen ekitaldiak:  
LEGAZPIKO Kultur Etxean: maiatzaren 28an, 18:30ean  
UGLEn: maiatzaren 29an, 18:30ean

Aurre matrikulazio epea:  
Ekainaren 2tik 13ra